



**IRIZPEN ZK.: D22-017**

## **IRIZPENA, UDAL OSOKO BILKURAREN BILERETAN HITZA HARTZEN DUEN JENDEA GRABATZEARI ETA GRABATUTAKOA HEDATZEARI BURUZKOA**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGO:** [...]go Udaleko alkateak irizpena eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan agertzen den auziari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

*«Udal honek osoko bilkuraren bilerak grabatzen ditu eta streaming bidez zuzenean ematen ditu. Geroago, bileren grabazioetara udal web-orriaren eta Youtuberen bidez irispidea izatea dago.*

*Idazki honen bidez Datuak Babesteko Euskal Bulegoari kontsultatzen diogu ea, bilerak publikoak direla kontuan hartuta, eta datu pertsonalak babesteari, gardentasunari eta toki-araubideari buruzko legeria aintzat hartuta, bilera horietara joaten diren eta hitza hartzen duten pertsonen irudia eta ahotsa grabatu eta hedatu ahal diren lehenago adierazi den moduan, haiek aurretiaz eta esanbidez adostasuna emanda; halaber, hala badagokio, adostasun hori eskatzeko moduari buruz galdetzen dugu».*

**BIGARREN:** Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea».*

Beraz, araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

### **KONTUAN HARTZEKOAK**

#### **I**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari kontsultatzen zaio ea udalak osoko bilkuraren bileretara joaten diren eta hitza hartzen duten pertsonen irudia eta ahotsa grabatu eta hedatu ahal dituen, haiek aurretiaz eta esanbidez adostasuna emanda, bai eta, hala badagokio, zein modutan eskatu beharko litzatekeen adostasun hori.

Bulegoak erantzuna emango dio egindako kontsultari datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik (2/2004 Legearen 17.1 artikulua); dena dela, beste eskubide batzuk ere aztertu ahal dira, oinarrizko eskubide horrekin talka egin ahal dutenak –edo ez–



Hasteko, gogora ekarri behar dugu pertsonaren irudia eta ahotsa datu pertsonalak direla, eta hala xedatzen du 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 4.1 artikulua —Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Aurrerantzean Erregelamendu Orokorra)—:

*«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».*

Bestalde, pertsona baten ahotsa eta irudia atzitzea eta hedatzea datuen tratamendua da; hain zuzen ere, Erregelamendu Orokorren 4.2) artikuluan honela definitzen da tratamendua:

*«Datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabili zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».*

## II

Egin diguten kontsulta aztertu aurretik, komeni da begiratzea ea udalaren osoko bilkuraren bileren irudia eta audioa atzitzea edo grabatzea eta gerora komunikatzea, lagatzea edo hedatzea, datu pertsonalen tratamendua den aldetik, legez babestu ahal den Erregelamendu Orokorren 5.1.a) artikuluan aldarrikatzen den zilegitasun-printzipioaren arabera. Printzipio hori betetze aldera, halako tratamenduek Erregelamendu Orokorren 6.1 artikuluan jasotako honako oinarri juridiko hauetako baten babesa beharko dute: adostasuna, kontratua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea, interes legitimoa edo ukituaren berebiziko interesa.

Toki korporazioen osoko bilkuren bilerak publikoak izan behar direla agintzen du apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarri buruzkoaren (TAOL) 70.1 artikulua, berriaz dioelako toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak direla.

*«70. artikulua.*

*1. Toki erakundeetako osoko bilkurak publikoak izan ohi dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan, aipatutako herritarren oinarritzko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.*

*Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak».*

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 30. artikuluan bileren publikotasunaren araubidea osatzen du udalen eremuan. Artikulu horrek honako hau xedatzen du:



«30. artikulua. – Bilkuren publizitatea.

1.– Udalaren osoko bilkurak publikoak dira.

2.– Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak publikoak izango dira, salbu eta kontrakoa ezartzen badu osoko bilkurak, bere kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, edo ordenamendu juridikoak. Aurreko hori gorabehera, edozein kasutan publikoak izango dira gobernu-batzarraren bilkurak, beti ere errespetatuz herritarrek ohorerako, intimitate pertsonal eta familiarerako eta irudi pertsonalerako duten oinarrizko eskubidea, noiz eta organo horrek jarduten duenean osoko bilkurak eskuordetutako ahalmenak baliatuz, edo tokiko gobernu-batzarraren lehendakariak baimentzen duenean, gai jakin batean, gai hori hobeto ebazteko lagungarriak izan daitezkeen pertsonen presentzia edo parte-hartzea.

3.– Organo osagarrien bilkurak –batez ere osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertzeko, haien gainean irizpena egiteko edo haietaz aholkua emateko, eta orobat gobernu-organoen kudeaketaren jarraipena egiteko diren organoenak– publikoak izan ahalko dira, hala erabakitzen badu erakundearen osoko bilkurak bere legezko kideen gehiengo osoaren erabakiz, edo hala aurreikusten bada udalaren erregelamendu organikoan.

4.– Eztabaidak eta bozketak sekretuak izan ahalko dira Konstituzioaren 18.1 artikulua oinarrizko eskubidean eragina eduki dezaketen gaiak buruzkoak direnean, betiere erakundearen osoko bilkurak egitatezko kideen gehiengo osoz hala erabakitzen badu. Dena dela, osoko bilkura batean irudia edo soinua grabatzen bada eta grabazio horietan ohoreari, intimitate pertsonal edo familiarari edo irudi pertsonalari dagokion eskubidean eragina izan dezaketen gaiak tratatzen badira, gai horiek tratatzen diren bitartean grabazioa eteteko aginduko du lehendakariak, bere ekimenez edo edozein udal-talde politikok proposatuta, herritarren oinarrizko eskubideak eta datu pertsonalak babesteko legeria betetze aldera.

5.– Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, artikulua honetan aipatzen den bilkuren informazioa eta publizitate-araubidea bitarteko eta formatu eskuragarrien bidez emango da.

6.– Toki-erakundearen bilkura publikoetan, herritarrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, eta ezingo zaie exijitu hitz egiteko aukeratu ez duten hizkuntzan itzulpenik egiterik edo azalpenik ematerik».

Aztertzen ari garen kasuaren antzekoak diren beste batzuetan ere Datuak Babesteko Euskal Bulegoak adierazi duenez, esan behar dugu osoko bilkuraren bilerak grabatzeko eta grabazioak hedatzeko adostasuna eskatu behar izatetik salbuesten duen lege-gaikuntza egon dagoen arren bai TAOLean bai ETELean, gure ustez, salbuespenak bakarrik balio beharko lukeela osoko bilkuraren unean uneko bileran dauden kideentzat, eta ez bertan parte hartzen duten edo gonbidatuta dauden beste pertsonentzat. Valero eta Fernández Salmerón irakasleek diotenez, bileren publikotasuna «tokiko administrazioak duen izaera demokratikoaren eta ordezkaritza izaeraren ondorio kualifikatua» da, eta ordezkaritza-organoren horietako kideak behartuta daude euren buruen irudiaren eta ahotsaren tratamendua onartzera, adostasunik adierazi gabe. Baina, kontrara, ahalegina egin beharko da gonbidatuen edo parte-hartzaileen irudirik edo ahotsik ez grabatzeko.



Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak hainbat irizpen egin du auzi honi buruz. Bere iritziz:

*«Udalaren osoko bilkuraren bileretan irudia eta ahotsa atzituko dira, baita gerora zabalduko ere, soil-soilik publikoak diren bileretan edo bileren zatietan, eta horretarako, datuak babesteko araudiaren printzipio eta bermeak bete beharko dira; hala, herritarrei informazioa emango zaie osoko bilkuran eztabaidatzen diren gaiei buruz, baina horrek ez du esan nahi bertaratutako datu pertsonalak babesteko eskubidea edo osoko bilkuraren bileretako eztabaidetan ager daitekeen informazioak ukitutako datu pertsonalak babesteko eskubidea bidegabeki urratu behar denik». (CNS 40/2009, CNS 32/2012, CNS 44/2015, eta CNS 54/2015, CNS 62/2016).*

Horren haritik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, honako hau ezartzen du 88. artikuluan:

*«1. Jendaurrekoak izango dira osoko bilkurak. Halere, Espainiako Konstituzioko 18.1 artikulua aipatzen duen herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa isilpekoak izan daitezke, gehiengo osoak hala erabakitzen badu.*

*2. Bileren bilakaera ikusizko edo entzunezko bitartekoak erabilia hedatzeko, megafonia-sistemak edo telebista-zirkuitu itxiak instalatu ahalko dira.*

*3. Herritarrek, nahiz eta osoko bilkuraren bileretara joan, ezin dute horietan parterik hartu; era berean, ezin dute adostasuna edo desadostasuna adierazi ere. Kasu larrietan, buruak herritarren bat bota dezake bileratik, edozein arazoaren ondorioz herritar horrek bileraren bilakaera arrunta oztopatzen badu. Horri kalterik egin gabe, bilera amaitutakoan, korporazioak kontsulten txanda bat ezarri ahal du, bertan dauden herritarrek eskariak eta galderak egin ditzaten, udalaren intereserako gaietan.»*

Halaber, [...]go Udal Erregelamendu Organikoak bereizi egiten ditu, alde batetik, osoko bilkuraren bilerak eta, bestetik, herritarrek bilera horietan hitz egitea. [...]go Udal Erregelamendu Organikoaren 13. artikuluan korporazioaren osoko bilkuraren funtzionamendua arautzen da. Artikulu horren 5. apartatuan ezartzen denez, osoko bilkuraren bilerak jendaurrekoak izango dira. Hala ere, 6. apartatuan honako hau xedatzen da:

*«Plenoko saioetan hiritar orok parte har dezake Gai Ordenako ezein gaitan, hala ere, ez da onartuko udalbatzarraren funtzionamendua oztopatuko duen jarrerarik. (...)*

*Hiritarrek parte hartzen duten unean Plenoa geldiarazi egingo da aldi baterako, esku hartze horiek amaitzerakoan berrekingo zaiolarik. Hiritarrek azaldutakoari erantzunez Korporazioko kideek egin bide dituzten esku hartzeak ere ez dira Plenokotzat hartuko.»*

Azaldu den horregatik guztiarengatik, ondorioztatu behar da TAOLEk eta ETELEk ez dutela legitimaziorik ematen osoko bilkuraren bilerara joaten diren herritarren hitzaldiak grabatzeko eta hedatzeko. Horretarako, haien datu pertsonalen tratamendua egin ahal izateko, haiek adostasuna eman behar dute ezinbestean. Nolanahi ere, emandako adostasuna tratamendua legitimatzeko oinarri nahikoa izan dadin, Erregelamendu Orokorren 6.1.a) artikulua babespean, adostasun hori jasotzerakoan bete beharko dira Erregelamendu Orokorrean eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan ezarritako baldintzak, jarraian azalduko diren horiek.



- Erregelamendu Orokorraren 4.11) artikulua honela definitzen du adostasuna:

*«Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena».*

- Eta zehatzago, Erregelamendu Orokorraren 7. artikuluan adostasunerako baldintzak ezartzen dira; besteak beste, kontsultarekin zerikusia duten baldintza hauek aipa daitezke:

*«1.- Tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen denean, arduradunak gai izan behar du frogatzeko interesdunak oniritzia eman ziola bere datu pertsonalak tratatzeari.*

*2.- Interesdunaren adostasuna adierazten bada beste gai batzuk ere ukitzen dituen idatzizko adierazpen baten testuinguruan, adostasun-eskaera beste gaietatik argiro bereizteko moduan aurkeztuko da, erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran, eta hizkera argia eta erraza erabilita. Erregelamendu hau urratzen duten adierazpen-zatiak ez dira lotesleak izango.*

*3.- Interesdunak eskubidea izango du adostasuna bertan behera uzteko nahi duenean. Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarrituriko tratamenduaren legitimitatean. Adostasuna eman aurretik, interesduna horren jakitun jarri behar da. Adostasuna kentzea ematea bezain erraza izango da.*

*4.- (...).».*

Adostasuna azaldu diren baldintzetan lortzen ez bada, ezingo dira grabatu, ezta hedatu ere, udal osoko bilkuraren bilerara joaten direnen hitzaldiak.

### III

Argi dagoenez, korporazioak erabiltzen badu, herritarren ohorea eta intimitatea babesteko asmoz, eztabaida eta bozketa sekretuak izatea ahalbidetzen duen ahala, halakoetan ere osoko bilkuraren bilerak grabatzeko gaikuntzak ez du balioko.

Azkenik, ezinbestean gogora ekarri behar dugu gauza bat: Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan aldarrikatzen den gardentasunaren printzipioak behartuta, osoko bilkuraren bilerara joaten direnei aurretiaz jakinarazi beharko zaie bilera grabatu eta hedatuko dela. Informazio hori Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan eta 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikuluan ezartzen denaren arabera eman beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 26an